ERANSKINA

**BILBOKO UDAL-ETXEBIZITZAK TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN GIZARTE-LANGILEAREN LANPOSTU BAT (PLANTILLAKO LAN-KONTRATUDUN LANGILE FINKOA) LEHIAKETA-SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO EZOHIKO EGONKORTZE-PROZESUAREN DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK**

## 1. Iragarritako plazak

Salbuespenezko gizarte-langilearen lanpostu bat iragartzen da, behin bakarrik eta lehiaketa-sistemaren bidez, txanda askean, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin euskaraz.

## 2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak bete nahi dituztenek egonkortze-oinarri orokorren 5.1 atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

## 3. Iragarritako lanpostuaren baldintza espezifikoak

3.1. Sartzeko titulazioa. Hautagaiek gizarte-langilearen titulua izan edo hura lortzeko moduan egon beharko dute, edo lanbide hori izateko gaitzen duen titulua, Europar Batasunaren arauekin bat, eskabideak edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epea amaitzean.

Atzerrian lortutako tituluak dituzten hautagaiek dagokion homologazio-kredentziala izan beharko dute. Baldintza hori ez zaie aplikatuko kualifikazio profesionalaren aitorpena lortu duten hautagaiei, araututako lanbideen arloan, Europar Batasunaren zuzenbide-xedapenen babespean.

## 4. Hautaketa-prozesua

Lehiaketa izango da hautaketa-sistema. Merezimendu guztiak alegatu beharko dira eskabidean edo erantzukizunpeko adierazpenean, hura aurkezteko epearen barruan.

Merezimenduak lortzeko epemuga eskabideak edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko epearen amaiera-data izango da.

Eskabideak edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko eguna gorabehera, merezimenduak horiek aurkezteko epearen amaiera-datara arte zenbatuko dira.

Prozesuaren kalifikazioa zehazteko honako baremo honen arabera emandako puntuak batuko dira:

a) *Esperientzia orokorra*

Esperientzia orokor gisa ulertzen dira administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, A taldeko A2 azpitaldeko gizarte-langilearen plaza edo lanpostuan: gehienez ere 30,00 (hogeita hamar) puntu lortu ahal izango dira, hau da, 3,75 (hiru eta hirurogeita hamabost) puntu zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako tarteko.

b) *Esperientzia espezifikoa*

Esperientzia orokorrarekiko modu bereizi eta osagarrian, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAn emandako zerbitzuak baloratuko dira, A taldeko A2 azpitaldeko gizarte-langilearen lanpostuan: gehienez ere 60,00 (hirurogei) puntu lortu ahal izango dira, hau da, 7,50 (zazpi eta berrogeita hamar) puntu zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako tarteko, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera.

c) *Beste merezimendu batzuk*

Atal honetan gehienez ere 10,00 (hamar) puntu lortu ahal izango dira.

c.1) Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilearen lanpostuetara sartzeko plantillako langile finko bihurtzeko 2009ko hautaketa-prozesuko ariketak gainditzea edo Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilea lanpostuetara sartzeko plantillako lan-kontratudun langile finko bihurtzeko hautaketa-prozesutik eratorritako lan-poltsa propioan sartuta egotea.

eek: BAO-2022a234-(II-5479)

| Kontzeptua | Puntuak |
| --- | --- |
| Oposizio-faseko ariketa guztiak gainditzea | 10,00 (hamar) |
| Oposizio-fasean gutxienez bi ariketa gainditzea | 7,00 (zazpi) |
| Oposizio-faseko lehen ariketa gainditzea | 5,00 (bost) |
| Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilearen lanpostuetara sartzeko hautaketa-prozesutik eratorritako lan-poltsa propioan sartuta egotea | 3,00 (hiru) |

Aurrekoen artean aukera onena aukeratuko da, eta ez dira metagarriak izango.

c.2) Informatika-ezagutzak:

Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 1,00 (bat) punturekin maila aurreratuko ziurtagiri hauetako bakoitza eta 0,50 (zero eta berrogeita hamar) punturekin oinarrizko mailakoak edo maila bakarrekoak:

— Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa.

— Microsoft Access 2000/XP/2003 edo ondorengoa.

— Internet.

— Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

— Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo ondorengoa, maila bakarra.

Moduluak gainditu direla egiaztatuko da IT Txartela ziurtapen-sistemaren bidez, oinarri orokorretan adierazi den moduan. Modulu baten bertsio desberdinak egiaztatzen badira, soilik horietako bat baloratuko da.

Deialdian, maila aurreratua egiaztatzen dutenek, halaber, egiaztatuta izango dute oinarrizko maila, eta soilik maila handiena baloratuko da.

c.3) Hizkuntzak:

Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea baloratuko da, gaztelania ez direnak, honen arabera:

B2 maila edo handiagoa: 2,50 (bi eta berrogeita hamar) puntu.

Egiaztatutako hizkuntza bakoitzerako soilik ezagutza-mailarik handiena puntuatuko da.

**5. Lan-poltsa**

Deialdi honek ez du lan-poltsarik sortuko.

eek: BAO-2022a234-(II-5479)

BilbaoEtxebizitzak
Viviendas Municipales

# ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN

## 1.- Deialdia /Convocatoria

Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria

**GIZARTE LANGILEA**
**TRABAJADOR/A SOCIAL**

Sartzeko sistemak/Sistemas de acceso Leiaketa/Concur ☐

Txanda/Turno: Askea / Libre ☐

## 2.- Norberaren datuak / Datos personales

| | | | |
|---|---|---|---|
| Lehenengo abizena / Primer apellido | | Bigarren abizena / Segundo apellido | Izena / Nombre |
| NAN/AIZ / DNI/NIE | Naziotasuna / Nacionalidad | Jaioteguna / Fecha de nacimiento | Sexua / Sexo<br>E. / M. ☐ G. / H. ☐ |
| Telefono finkoa / Teléfono fijo | Telefono mugikorra / Teléfono móvil | | Posta elektronikoa / Correo electrónico |

## 3.- Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Helbidea / Dirección | Ataria / Portal | Eskailera / Escalera | Solairua / Piso | Eskua / Mano | Atea / Puerta |
| PK / CP | Herria / Localidad | Probintzia / Provincia | Herrialdea / País | | |

## 4.- Euskara / Euskera

Profila egiastatzen dut (jarri <<X>> dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una <<X>> el correspondiente)

1HE / PL 1 ☐ 2HE /PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐

## 5.- Betebeharrak / Requisitos

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria:

☐ Gizarte Langileko titulua edo Europako Batasunaren arauen arabera lanbide hori egiteko gaitzen duen titulua eduki behar dute, edo hori eskuratzeko moduan egon./Estar en posesión o en condiciones de obtener el título de Trabajador/a Social, o el título que habilite para el ejercicio de esta profesión regulada, según establecen las normas de la Unión Europea

eek: BAO-2022a234-(II-5479)

BilbaoEtxebizitzak
Viviendas Municipales

## 6.- Merituak / Méritos

**Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO**

| | |
|---|---|
| | Administrazio publikoetan Gizarte Langilea (A taldea, A2 azpitaldea), plazan emandako zerbitzuak ditut. / Poseo servicios prestados en las Administraciones públicas en plaza de Trabajador/a Social del grupo A, subgrupo A2. |

**Adierazi Administrazio publikoa eta denbora / Indique la Administración pública y el tiempo.**

| | Plaza, Lanpostua / Plaza, Puesto | Administrazioa / Administración | Urteak / Años | Hilabeteak / Meses | Egunak / Días |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 2 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2)) | | | | |
| 3 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 4 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 5 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 6 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 7 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 8 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 9 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |
| 10 | GIZARTE LANGILEA TRABAJADOR/A SOCIAL (A2) | | | | |

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarrirako, eskabideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud

| | |
|---|---|
| | Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.an A taldeko A2 azpitaldeko Gizarte Langilearen lanpostuetan emandako zerbitzuak ditut. / Poseo servicios prestados en el O.A.L., Viviendas Municipales de Bilbao en puestos de Trabajador/a Social del grupo A, subgrupo A2 |
| | Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilearen lanpostuetara sartzeko plantillako langile finko bihurtzeko 2009ko hautaketa-prozesuko ariketa guztiak gainditu ditut. / He superado todos los ejercicios en el último proceso selectivo de 2009 de acceso a la condición de personal laboral fijo de plantilla a puestos de Trabajador/a Social del OAL Viviendas Municipales de Bilbao |
| | Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilearen lanpostuetara sartzeko plantillako langile finko bihurtzeko 2009ko hautaketa-prozesuko bi ariketa edo gehiago gainditu ditut. / He superado al menos dos ejercicios en el último proceso selectivo de 2009 de acceso a la condición de personal laboral fijo de plantilla a puestos de Trabajador/a Social del OAL Viviendas Municipales de Bilbao. |
| | Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren gizarte-langilearen lanpostuetara sartzeko plantillako langile finko bihurtzeko 2009ko hautaketa-prozesuko lehen ariketa gainditu dut. / He superado el primer ejercicio en el último proceso selectivo de 2009 de acceso a la condición de personal laboral fijo de plantilla a puestos de Trabajador/a Social del OAL Viviendas Municipales de Bilbao. |
| | Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.ko Gizarte Langile lanpostu hautaketa-prozesuetatik eratorritako lan-poltsetan nago. / Formo parte de la bolsa de trabajo propia derivada del proceso selectivo de puesto de Trabajador/a Social del O.A.L., Viviendas Municipales de Bilbao. |
| | Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagoko IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior. |
| | Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagoko IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior. |
| | Microsoft Access 2000/XP/2003 edo geroagoko IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Microsoft Access 2000/XP/2003 o posterior. |
| | Internet-en IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Internet. |
| | Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 edo geroagoko (maila bakarra) IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 o posterior, nivel único |
| | Microsoft Outlook XP/2003/2010 edo geroagoko (maila bakarra) IT-Txartela daukat / Estoy en posesión de la IT-Txartela en Microsoft Outlook XP/2003/2010 o posterior, nivel único |
| | Europar Batasuneko hizkuntza ofizialen titulu ofizial bat edo batzuk ditut, gaztelania ez direnak, B-2 mailakoak edo goragokoak /.Estoy en posesión de uno o varios títulos oficiales de idiomas oficiales de la Unión Europea diferentes de la lengua castellana de nivel B-2 o superior |

eek: BAO-2022a234-(II-5479)

BilbaoEtxebizitzak
Viviendas Municipales

## 7.- Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

| | |
|---|---|
| | EZ NAGO AURKA Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.k, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun, IT txartel, gidabaimen eta Administratzio Publikoetan egindako zerbitzuak kontsulta eta egiazta ditzan, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean, eta JAKINAREN GAINEAN NAGO. Aurka eginez gero, dagozkion agiriak erantsi beharko dira, eskatzen diren unean. / QUEDO INFORMADO Y NO ME OPONGO a que el O.A.L., Viviendas Municipales de Bilbao consulte y verifique por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos, IT Txartelas, permisos de conducción y servicios prestados en Administraciones Públicas alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de oponerse deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes en el momento en el que sea requerido |
| | Baimena ematen diot Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A.ri nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el O.A.L., Viviendas Municipales de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo. |

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SI o NO:

**Lege-informazioa**

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezientan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

**Información legal**

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

**Jarri <<X>> laukitxoan / Marque con una <<X>> en el recuadro**

| | |
|---|---|
| | ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO |

Eskaera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

| Tokia / lugar | Urtea / año | Hilabetea / mes | Eguna / día |
|---|---|---|---|
| | | | |

Sinadura / Firma

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK T.E.A.
O.A.L. VIVIENDAS MUNICIPALES DE BILBAO

eek: BAO-2022a234-(II-5479)

BilbaoEtxebizitzak
Viviendas Municipales

**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, indarrean dagoen datuak babesteko araudian aurreikusitako ondorioetarako

Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Bilboko Udal Etxebizitzak T.E.A. da (Navarra Kalea, 1, 5. eta 6. solairua, 48001 Bilbo).
Bilboko Udalean, Modernizazioko Idazkaritza Teknikoaren Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007 Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikuluak) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. art.eta urrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean.

Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak hautaketa-prozesuan komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako berariaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.
Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANa, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago berariaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legitimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

**PROTECCIÓN DE DATOS**

A los efectos previstos en la normativa vigente de protección de datos se le informa que:

El Responsable del tratamiento de sus datos personales es el O.A.L. Viviendas Municipales de Bilbao (Calle Navarra, nº 1 5º y 6ª planta, 48001 Bilbao).
El Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Secretaría Técnica de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, 5ª planta, 48007, Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultas del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (arts. 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (art. 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones durante el proceso selectivo es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.
Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, D.N.I, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

eek: BAO-2022a234-(II-5479)